

TOTI MARTÍNEZ DE LEZEA



ENDA LUR

n a r r a t i b a •

e r e i n

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2014ko azaroan

Maketazia:

Erein

© Toti Martínez de Lezea

© EREIN. Donostia 2014

ISBN: 978-84-9746-936-4

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.com

www.erein.com

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Toti Martínez de Lezea

ENDA LUR



erein

Ilargia gorritu egin zen haurra jaio zen gauean, Enda Lur saraskituko zuten hondamenen iragarle. Eguneko argia itzali eta gauaren Jainkosa zeruko gangan gori-gori agertu zenerako sumatu zituen amak lehen erdiminak. Izaturik herrixkatik alde egin, eta Orbako baso hurbilean babestu zen, pago erraldoi baten adar makurren azpian erditzeko. Hantxe jaio zen Endara, gaueko hegaztien uluak eta naturaren karraskak lagun zituela, gaueko argizagiaren argi gorrixkapean, zuhaitz sakratuaren hostoek orbeldutako lurrean. Zabal-zabalik zituen begiak –begi ilunak, gauaren kolorekoak–, eta amari so zegoen hark bereak betiko itxi zituen unean; hala ere, azken hatsa eman aurretik, amak haurra bularrera hurbildu eta bere azken bizi-izpiaz elikatzeko aski indar bildu zuen.

Biharamunean aurkitu zituen bikotekide eta aita zenak; biak hilik zirelakoan, zerura jaso zituen besoak, ukabilak itxita eta masailezurak estuturik, saminezko oihua itozteko ahalegin etsian. Gorpuak hartu eta herrira eramatera zihoala, ordea, ohartu zen alaba bizirik zela artean. Haurrak bere begi beltz erraldoi haiekin begiratu ziolarik, hotzikara

bat sumatu zuen aitak bizkarrezurrean behera. Izaki hura ez zen besteak bezalakoa, inondik ere: ez zuen negarrik egiten, azal zuri-zuria zuen, eta ile beltza, ez jaioberriek izan ohi duten ilaun moduko hori. Nolanahi ere, alabaren begirada ilun hark arnasa eten zion aitari, iruditu baitzitzaion alabaren begiek, begiratu ez ezik, ikusi ere egiten zutela. Gau hartan bertan erraustu zuten emakume hil berria, ilargipean, ilargia berriz ere zuri zela. Goratu ziren erreguak eta kantak zeruraino, eta sua piztu zuten haitzulo baten alboan, zeinetan gordeko zituzten, gero, emakumearen errautsak, berriro jaio zedin Jainkosaren altzoan, Ahaltzuaren altzoan; hura zen izaki bizi guztien, gizaki, animalia nahiz landare orenen ama, baita ilargiaren eta eguzkiaren ama ere, itsasoena nahiz mendiena; hura zen altzo emankorra, natura, bizia. Endara haurtzain batekin utzita, beste emakume batekin elkartu zen haren aita, eta seme-alaba gehiago izan zituen, baita alaba bat bazuela ahaztu ere.

Hamabost negu igaro ziren harrezkero, eta haurra neska eginda zegoen ordurako; herritarrak haren beldur ziren, eta errezeloz begiratzen zioten, nahiz eta neskatila hark esaten edo egiten zuena ez izan haren adintsuko gazteek esaten edo egiten zutenaz oso bestelakoa. Ezin zuten burutik kendu haurra mundura sortu zeneko gaua; ezin ahaztu, orduko ilargi odolez gorria, ama haurra erditzean hil izana, haurraren begiratu iluna. Haur hura besteak ez bezalakoa zela adierazten zuten ikurrak denak, inondik ere. “Sorgin” hitza aditzen zen tarteka, ahapeka esanik; baina inortxo ere ez zen ausartzen hitz hura ozen esatera, egia izango ote zen beldur.

Bakar-bakarrik hazi zen haurra, lagunik gabe, laztanik gabe, maitasunik gabe. Herriko kortan lo egiten zuen, ahuntzen artean, eta haien esneaz elikatzen zen; orobat jaten zituen gaztainak, basafrituak edo sagarrak, noizean behin botatzen baitzizkioten, txakur gosetiei bota ohi zaizkien modu berean. Jabeek bazterturiko tunika zaharrak jantzita ibiltzen zen. Herrian inork ez zuen gogoan, ordea, hain neska ederrik inoiz ikusi izana: haren edertasunak txunditurik uzten zuen neska hura lehenengoz ikusten zuena. Arlote baten modura jantzita ibili eta egun osoa aterperik gabe eman arren, elur berria bezain zuri zuen azala, eta, haren aldean, belearen hegoa bezain iluze beltza, eta, batez ere, gau puskak bezain ilunak begiak, hondorik gabeko begirada bat. Bakardadea arintzeko, neskabila sarritan joaten zen basora, bere sorlekura, eta dantzari aritzen zen ama eta biak babestu zituen pagoaren inguruan. Bere belarrietan baino ez zen entzuten muskarik, ordea, beretzako ez beste inorentzako musika baitzen; eta existitzen ez zen doinu hari jarraituz jirabiraka, orduantxe izaten zuen zorion apurtxo bat. Neskabilaren presentziara ohituta, basoko animaliak zuhaitzera hurbiltzen ziren, haren oinek orbela ukitzean egiten zuten hotsak erakarrira, eta geldi-geldi geratzen ziren, haren dantzari so, hark laztan ziztzen utziz. Pertsona baztertuek bestelako zentzumen batzuk garatu ohi dituzte, eta horrela lortu bide zuen Endarak animalia haiekin ulertzea, hitzik gabe, begiraden bidez, belarri eta muturren mugimenduaren bidez, lurra ostikatzeko moduaren bidez. Eta, itxuraz, animaliek ere asko ikasi zuten neskabilaz, eta berehalakoan asmatzen zuten noiz sentitzen zen

pozik eta noiz sentitzen zen, aldiz, gizagaixorik zorrigaizto-koena.

Gertatu zen gau batean Endara ahuntz-kortan lo zela herriko gizon bat sartu, eta, hitzik esan gabe, neskatilari gainera jauzi egin ziola, bortxaz hartzeko asmoz. Neska gaztea ikaratuta esnatu zen, baina mugitu ere ezin izan zen ia egin, besoetatik eutsita baitzeukan gizonak.

-Lagundu! –oihukatu zuen.

Endaren erregua ulertu balute bezala, ahuntzak marraz hasi ziren, eta akerrak, ahuntz taldearen erregeak, arrotzaren gainera jauzi egin eta bere adar luzeak iltzatu zizkion lantza zorrotzen moduan, eta gizona uxatu zuen. Handik gutxira, herri guztia zegoen kortaren aurrean, gizon adarkatuaren azalpenak entzunez, zeinak baitzioen ahuntz bat jetera joan zelarik, erasotzeko agindu ziola "sorginak" akerrari. Neskatilak aho-zabalik entzun zituen erasotzailearen hitzak eta, okerragoa zena, ikusi zuen bizilagunek sinetsi egin ziotela eta haien behatz salatariak bera seinalatzen zutela. Aita bilatu zuen begiradaz, baina haren aurpegi irmoan ere ez zuen topatu laguntzarik. Ez anai-arreben artean, ezta edoski zuen emakumearengan ere. Hala, bada, sorterritik alde egitea erabakita, ihes egin zuen. Baina, une horretan, gertaera harrigarri bat jazo zen. Akerra aurrean jarri zitzaion, ahuntz taldeak bere amandrea inguratu zuen, gudaroste baten antzera, eta halaxe atera ziren kortatik, zur eta lur eta izuak dantzan utzirik han bildutako guztiak, zeinak baztertu baitziren alde batera, Endara irten zedin. Basora iritsitakoan, animaliak kortara itzuli ziren. Gau hartan, Endarak bere jaiotzaren

lekuko izandako pagoaren azpian lo egin zuen; egunsentian iparralderantz joko zuen, bizitoki baketsu baten bila.

Egunaren lehen printzek hostotza zulatu eta ihintzak hezetutako belarrezko alfonbra argitu orduko eten zen inguruko isiltasuna. Oihu batzuekin esnatu zen neskatila. Hasieran, amets gaizto bat izan zuela pentsatu zuen; baina, gero, burura etorri zitzaion herriko jendea izango ote zen, bera hiltzera joana, eta uzkur-uzkur egin zen, lehen kolpea noiz jasoko. Ez zen kolperik izan, ordea, eta oihu gehiago entzun ziren, gero eta etsiagoak; egur errearen usain sarkorra ere aditzen zen. Begiak ireki zituen. Ke lodi batez inguratuta zegoen, eta, halako batean, orein izutien talde bat igaro zitzaion albotik, trostan. Une batez, haien atzetik lasterka joatea pentsatu zuen, baina ez zuen halakorik egin; zuhaitz-adarretan gora igo zen, zer arraio gertatzen ari zen begiratzera. Bere begiralekutik, nekez ikusten zuen sua beste ezer: sua, herriko etxoletan gora, eta euriz kargatutako hodeiekin nahasten zen ke-zutabe izugarri bat. Haizea zebilen egunetan, ohikoa zen su-txinpartek jauzi egin eta sabaietako lastoa erretzea; baina, orduko hartan, beste zerbait ere bazen, neskak antzeman ezin ziona: atsekabezko oihuak, eta, haiekin nahasturik, ulu basa batzuk, odola izoztu ziotenak. Handik puska batera, burrunbada bat sentitu zuen lurrean, eta, beldurturik, zuhaitz-adar oker bat besarkatu zuen, gorputz osoa haren formari egokitzeraino, harekin bat eginik, halako eran non ez baitzuen inork ikusiko, arreta handiz begiratzuz ez bazen. Bat-batean, zaldun talde bat ikusi zuen bere azpitik igarotzen. Ezin izan zituen ikusi haien aurpegiak, burdinazko

burukoak zeramatzaten-eta jantzita; bai, ordea, haien aizkora eta ezpata odolduak, buru gainetik jasota. Baita entzun ere haien garaipen-oihuak, hizkuntza ezezagun batean esanak; eta indar betez eutsi behar izan zion adarrari, ez erortzeko, halako asaldura eragin zioten deiadar haiek. Luzaro iraun zuen jarrera hartan, harik eta basoa baretu zen arte. Gero, herrira begiratu zuen. Ez zegoen suaren arrastorik ia, baina kea ikusten zen artean. Isil-isilik zegoen dena, eta are izugarriagoa zen isiltasun hura halako bihotz-ikara eragin zioten etsipenezko oihuak baino. Kostatu zitzaion behingoz erabakia hartzea, baina, azkenean, zuhaitzetik jaitsi, eta herrira inguratu zen, arrastaka, sastraken atzean ezkutatuz, zaratarik txikienari adi, inorekin topo egiteko beldurrez.

Lehenengo, bat; gero, beste bat; eta, hurrena, beste bat: lurrean hilik aurkitu zituen den-denak, gizon, emakume eta haur, beren odolak sortutako putzuetan. Amaren besotan hilik umetxoak, burua moztuta umeak, gona jasota eta hankak odolduta emakumeak, garezurra bitan zatituta gizonak, eta zintzurra moztuta agureak, begiak zabalik, beren heriotzaz harriturik, artean. Aita, soka batetik zintzilik, besoak eta hankak moztuta; odolustuta, ahizpa, pixka bat urrunago; eta anaia, aurpegia alderik alde moztuta. Endararen begirada iluna ikatza bezalaxe goritu zen bere begietan beretarren odola islatu zelarik; beretarrak baitziren haiek guztiak. Bere familia, bere herria, bere leinua, nahiz eta bera maitatu ez eta betidanik baztertuta eduki. Ez zuen negar egin, txikitatik ikasi baitzuen emozioei eusten; baina zin egin zuen ez zuela ikuskizun lazarri hura sekula ahaztuko, mutiko

batek bihotzean sartua zuen aiztoa hartu eta bere soingaineko zarpailean garbitzen zuen bitartean. Ez zen zuhurra han luzarago gelditzea, litekeena baitzen hiltzaileak berriro itzul-tzea, eta, itzuliz gero, bere familiari eta herrikideei egindako gauza bera egingo zioten berari ere. Herriko labean aurki-tutako gaztaina irinezko opil batzuk hartu zituen, eta arti-lezko kapa bat, egoera harrigarriki onean zegoena, eta basoko bidera atera zen, berriz, atzera begiratu gabe. Pagoaren pa-rera iritsitakoan, hots bat aditu zuen, eta aiztoaren giderra es-tutu zuen. Kirats hura nahastezina zen; sastraka batzuen ar-tetik, bezperan Endararen alde egin zuen akerra agertu zen. Elkarri begiratu zioten, bai elkar ulertu ere. Orduan gogo-ratu zen neska herrian animalia batzuk ere ikusi zituela le-poa moztuta; bakar-bakarrak zeuden, beraz, akerra eta biak, eta, hala, elkarrekin jarraitu zuten aurrera.

Amairik gabeak ziruditen basoetan barrena ibili ziren, baina Endarak ez zuen beldurrik, lur ezezagunetan sartzen zen lehen aldia izan arren. Adorea ematen zion akerra alboan izateak: ez zien hurbiltzen uzten otsoei eta basurdeei, eta ez zen istant batez ere berarengandik aldentzen. Iturri eta erre-kastoetako ur garbiaz asetzen zuten egarria, eta, tarteka, akerra zuhaixka edo zuhaitz baten aurrean gelditzen zen, eta, hura gelditzen zen tokian, Endarak beti topatzen zuen be-rak zer jan –baiak, urrak, uztapikuak, masustak–; bere gi-dariak, ordea, ez zuen mokadurik ere jaten. Iluntzean, pago, lizar edo haritzen baten babes-bilatzten zuten, eta hostoen zurrumurrua, txorien hego-kolpeak eta hontzen ulua en-tzunez lokartzen zen neskatila, bere laguntzaileak zainduta.

Ezin zuen burutik kendu beretarren amaiera ankerra, baina gero eta garbiago ikusten zuen aitak eta besteek arrazoi osoz esaten zutela bera besteak ez bezalakoa zela. Egun batzuk besterik ez ziren senideen amai ankerretik, eta, hala ere, askoz ere lehenagoko gertaera bat iruditzen zitzaion, paraje urrun batean gertatua balitz bezala; bere begiez ikusi ordez amestu egin balu edo norbaitek kontatu izan balio bezala. Basoaren alaba zen, basoan jaioa, basoan babestua, eta basoan barrena zebilen, orain, arrotz sentitu gabe. Halako batean, gora begiratu zuen, zerua doi-doi ikusten uzten zuten zuhaitz-adarretara, eta, estropezu eginda, lurrera jausi zen, orkatila bihurrituta. Ibili ezinik, akerrari begiratu zion; animaliak agur edo diosal moduko keinu bat egin, eta alde egin zuen. Endarak adar artean desagertzen ikusi zuen, bat-batean bakarrik utzi zuela-eta harrিতuta, baina ez zion erantzuki egin. Azken batean, Naturaren legea zen indartsuenek soilik aurrera egitea, eta bera ez zen indartsuetakoa. Ihesaldiaren hasieratik jarraitu zioten bideko errekastora herrestan hurbildu, eta, hanka zauritua uretan sartuta, bere buruaren isla begiratu zuen uretan; errekastoa berez zen lasaia, baina une hartan ura erabat geldirik zela zirudien. Ez zuen bere burua ezagutu begirada seguru eta, aldi berean, adeitsua itzultzen zion emakume harengan, zeinak baitzirudien deitzen ziola islaren beste aldetik.

Zaldi baten trosta hotsak eten zuen lilura hura; Endarak ilea lazten zitzaiola sumatu zuen. Hantxe ziren, berriz ere, bere herriaren hiltzaileak! Eta, oraingoan, ezingo zuen zuhaitz sakratu baten gainera igo. Hala, bada, heldu zuen

gerriko lokarrian lotuta zeraman aiztoa, erasotzaileari ziztatzeko prest edo bere burua hiltzeko prest, okerreanean, haien mende jausi baino lehen, eta lurrean etzan zen, errekastoa-
ren ertzeko iratze erraldoi baten hostoen azpian. Gero eta hurbilago entzuten zen trosta hotsa, eta begiak itxi zituen. Bere alboan sentitzen zuen animalia-
ren presentzia, haren hartsa. Eta zaldunaren erasoaren zain gelditu zen; baina, handik puska batera, inolako ahotsik edo zaratarik entzuten ez, eta berriro ireki zituen begiak. Berealdiko ezustekoa hartu zuen: ez zegoen inor, mando zuri eder bat besterik ez, berak sekula begi bistan ikusitako zaldirik bikainena. Bere herriko zaldiek garaiera txikia zuten, sendoak ziren goldeari tiratzeko eta bikainak borrokarako, hala behar izanez gero; baina honek hanka luzeak zituen, eta zurda zoragarriak, haizearekin dantzan. Eta ezusteko are handiagoa hartu zuen zaldia ikusi zuelarik bere alboan belaunikatzen, berari begira-begira, bere gainera igotzeko gonbita eginez bezala. Eskua luzatu zuen, mesfidati, eta lepogaina laztandu zion; mandoak burukada txiki batez erantzun zion. Eta, handik pixka batera, trostan zihozen biak. Adatsa lau haizetara, zuhaitz hostoen laztana aurpegian, Endara zaldiarekin bat eginik sentitu zen, eta halako zirrara sentitu zuen, barre algarala bat atera baitzitzaion, eta basoko azken txokoraino zabaldu zen haren oihartzuna. Lehen aldia zen barre egiten zuena, eta libre sentitu zen bere algararen hotsa entzunda.

Ilunduta zegoen animaliak bere lasterraldia gelditu zuenerako; belaunikatu zen, Endara lurrera jaitsi zedin, eta ilunpetan desagertu zen, neska bakarrik utzita toki arrotz

hartan. Hala ere, arriskurik ez hartzea eta egunsentira arte hantxe gelditzea erabaki zuen Endarak. Mando zuriak hara eramán bazuen, izango zen arrazoiren bat; hala, artilezko kaparen azpian uzkur-uzkur egin, eta lokartu egin zen. Esnatu zenean, goiza aurreratua zela, aho-zabalik gelditu zen: bere ametsik liluragarrienean ere ez zukeen halakorik imajinatuko; hilik zegoela bururatu zitzaion, beste ezeren aurretik. Entzunak zizkien toki zoragarri bati buruzko kontuak herriko agureei, sutondoan elkartu eta kontu-kontari ari zirela. Kortatik entzuten jarduten zuen berak, sutondora hurbilduz gero berehalakoan isilduko zirela pentsaturik. Heriotzaz gero bizitzaz mintzatu ohi ziren, paraje zoragarri batez, zeinetara iristen baitziren espirituak Jainkosaren altzoan birsortu aurretik. Bera orain zegoen toki huraxe izan behar, zalantzarik gabe: mendi baten barrunbea, bizitzaren iturria besarkatzen zuen landaredi oparo batek estalia; malko turrua bat, ur berde eta urdin gardenezko putzu batera jaus-ten zena; Enda Lurren kokatutako harribitxi bat, zeinaren ikusmirak arnasa eten baitzion. Hantxe hazten ziren bere herriak gurtzen zituen zuhaitz guzti-guztiak: haritza, pagoa, lizarra, zumarra, gurbea, sahatsa, elorria. Toki sakratua zen, zalantzarik gabe, eta Endarak denbora puska bat behar izan zuen bere asalduratik oneratzeko; baina, oneratu zelarik, ez zen duda-mudetan ibili: kapa erantzi, eta uretan sartu zen.

Ez zuen hotzik sumatu, bakea eta harmonia sentiarazi baitzion bere gorputz biluzia ur izoztuarekin kontaktuan sentitzeak. Are gehiago, murgilaldia baltsamu bikaina izan zen: orkatilako mina kendu zion, baita bakardadeak bere espirituan

urratutako zauria sendatu ere. Amaren sabelera itzuli zen, jariakin esentzialaren isiltasunak kulunkaturik, eta berriro jaio zen, neguaren ondoren biziberritzen ziren landareak bezalaxe. Jainkosak beste aukera bat ematen zion. Dagoeneko ez zen bera, uretako lamia bat baizik, urrezko orraziaz ilea orrazten jardungo zena artzain bat agertu zain, hura maitatzeko prest, artzainak bere oinak ikusi eta ihes egin arte. Herriko agureek lamiez ere hitz egin ohi zuten, oin bakoi-tzean ahate eta antzarek bezala mintzez lotutako lau behatz zituzten dontzeila misterioitsu ezin ederrago batzuek. Burutazio horrek bere ameskeriatik esnarazita, Endara harkaitz baten gainera igo zen. Oinak uretara sartu aurretik bezalako-
xeak zituen, eta bere algara entzun zuen, bigarrenez, baina, orduko hartan, han, putzu sakratuan, goitik beherako lamia baten modura sentitu zen. Harkaitzaren gainean etzanda, Naturaren urrina usaindu zuen eta udazkeneko egun epel bateko eguzki izpiek laztan zezaten utzi zuen. Harik eta bere eta eguzki amandrearen artean itzal bat agertu zen arte. Arrano izugarri bat zebilen bere gainean hegan, biribilean, oso hurbil, erasorako prestatzen ariko balitz bezala; baina pare bat bira gehiago egin, eta goratu egin zen, bailara harreri suntsiezin baten modura babesten zuen pareta har-
kaiztsuaren gainetik, zuhaitzetan habiaratutako txorien txioa isilarazi zuen intziri batez. Endarari iruditu zitzaion hegaz-
tiak eta biek elkar ezagutzen zutela aurretik eta berriro topo egingo zutela noizbait.

